

*EBAZPENA, HABEren zuzendari nagusiarena, 2018ko apirilaren 30ekoa, Euskaltegiko Curriculum Proiektuaren idazketa berria gauzatzeko euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentroei eman zitzaien epea luzatzeko dena.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduak Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen du. Agindu honen 7. artikulua euskaltegiaren curriculum-proiektuaz dihardu, eta HEOCak ezarritako gidalerroen garapenerako euskaltegiaren izari-ezaugarrien araberrako curriculum-proiektua osatu behar duela euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak finkatzen. Horretarako Agindu horren Xedapen iragankorretatik bigarrenak xedatzen du: “Euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek bi urteko epea izango dute Agindu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera egun indarrean duten curriculum-proiektua Agindu honetan xedatzen dena ekartzeko”.

2017ko irailaren 11ko HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpenak 2017/1 Jardunbidea eman, eta euskaltegiak eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren araberrako Curriculum Proiektuak aurkezteko eta izapidetzeko aplikatuko diren irizpideak zehazten ditu. ECP hauen idazketa- eta onarpen-prozesuen epeei dagokionez, Ebazpen honen bigarren artikulua dio: Euskaltegi bakoitzeko curriculum proiektua aurkeztu ondorengo izapidea eta lanketa 2017/2018 ikasturtean gauzatu eta amaituko dela.

2017/1 jardunbidean ezarritako jarraibideei lotuz bideratu dituzte euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro guztiek bakoitzak bere ECPa landu, idatzi, eta HABEren Hizkuntzaren didaktika-zerbitzuko Curriculum Atalean egin beharreko aurkezpen-lanak burutu. Curriculum Ataleko teknikariek jasotako 99 ECPak “*Euskaltegiko Curriculum Proiektua Ebaluatzeko tresna*” izenburua daraman txostenaren argitan aztertu eta banan banako txosten teknikoak landu dituzte ikasturtean zehar. HABEren zuzendari nagusiak on eta egokitzat eman zituen txosten tekniko horiek eta 2018ko otsailaren 26ko dataz euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzera bidali. Bidalketa-gutun horretan 2018ko maiatzaren 11ko data ematen zitzaion euskaltegi bakoitzari bere ECParen gainean egindako oharra eta iradokizunak kontuan hartu eta idazketa berria HABEren aurkezteko.

